



**2016KO URRIAREN 25EKO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko urriaren hogeita bostean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakartzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2016ko irailaren 27an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- 16 H.J.A. -SAN PRUDENTZIO ERMITA- EREMUKO BI LURSAILEN XEHETSUN AZTERKETA.-**

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 16 Hirigintza Jarduketa Areako "San Prudentzio Ermita"- 2 lursailen Xehetasun Azterketari 2016ko ekainaren 2ko Alkatezaren Ebazpen bidez eman zitzaion hasierako onarpena. Xehetasun Azterketa hau Jon Eskisabel eta Juan Antonio Escalera-k sustatutakoa da eta Cristina Burgos eta Borja Izaskun arkitektoek idatzitakoa.

Xehetasun Azterketa hau jendaurrean hogeitasei eguneko denboraldiz eduki da, iragarriak 2016ko ekainaren 15eko G.A.O.ean eta ekainaren 14ko El Diario Vasco eta Berria egunkarietan argitaratuz, eta epe horretan alegazio 1 aurkeztu da, Juan Jose Gurrutxaga Arratibelek aurkeztutakoa.

Alegazio honen aurrean udal arkitektoak txostena egin du eta txosten horretan esaten da, besteak beste, xehetasun azterketaren helburua antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak osatzea dela eta alegazioa lursailen muga eta jabetzen ingurukoa dela eta hortaz ebazteko unea geroago berdinbanatze tresna idazten denean izango dela.



Hau honela, eta hirigintza, obra eta zerbitzuetako batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Juan Jose Gurrutxaga Arratibelek aurkeztutako alegazioa ezestea.
- 2.- Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 16 Hirigintza Jarduketa Areako -"San Prudentzio Ermita"- 2 lursailen Xehetasun Azterketa hau behin betikoz onartzea.

#### IV.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.-

Ordenantza fiskalen aldatetaren inguruan Ogasun Batzorde Informatzailearen proposamenaren azalpena egiten da. Proposamena eguneko gai zerrendarekin bidali dena da proposamenaren puntu garrantzitsuenen azalpena egiten da.

Orokorrean eta abuztutik abuztura urte arteko KPIren aldaketa 0,1ekoa izan dela kontuan izanda, proposamenaren irizpide orokorra igoserarik ez egotea da. Hiri ondasunen Zerga, OHZren kasuan, balioen ponentzia berria onartu eta ondorioz balioak orokorrean igo egiten direnez, eta igoera hau bat batekoa izan ez dadin, tipoa zer edo zer jaistea proposatzen da, oraingo milako 1,86522tik 1,67580ra. Beste alde batetik, Ibilgailuen zergari dagokionean ibilgailu historiko eta 25 urtetik gora dituztenenetzat %100eko hobaria. Tasei dagokionean, kiroldegiko tarifetan %eko 5eko igoera eta tarifa baxuenak dituzten kirol ikastaroetan %20ko igoera. Esan behar da kiroldegiko %5eko igoera hau bazkidetzen urtekoa berritzen denean izango dituela ondorioak, hau da, irailean. Ur horniduran, eta autofinantzaketa helburuarekin, %3,5eko igoera. Ur hornidura eta estolderia zerbitzuen tarifei dagokienean, baita ere, eta diru sarrerek zerbitzuen kostuei egokitzeko, estolderia tarifen igoera eta ur hornidura tarifen jaitsiera guztizkoa berdin gelditzen delarik. Hondakinen kasuan tasa %20an igotzea proposatzen da eta bilketa bi zatitan egitea, apirilean eta urriean. Bi zatitan egingo da baita ere aurrerantzean mahai eta aulkiekin herri jabaria okupatzeagatiko tasa.

Hernandez zinegotziak (EH Bildu) esaten du herriek proposamenaren aurka bozkatuko dutela, KPIa 0,1 izanda igoera nahiko gogorrak planteatzen direlako eta udalak daukan sarrerekin eta gerakinarekin moldatu daitekeela uste dutelako. Esaten du baita ere, hala ere eskertzen dutela ogasun batzordetik adostasunera iristeko egindako ahalegina.

Gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako 6 botoz (EH Bildu), honako akordioak hartzen ditu:

1. Bere espedienteen jasotzen den dokumentazioaren arabeko ordenantza fiskalen aldaketa eta baita ere zergen kudeaketa eta bilketa eta tokiko herri zuzenbideko beste sarreren ordenantza orokorra ere, haserako izaeraz onartzea.
2. Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lanegunetako denboraldian.
3. Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betiko bihurtzat joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

#### V.- BILERAREN AMAIERA.-



LAZKAOKO  
UDALA

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO  
UDALA